

Olentzaro herri literaturan



Adolfo **A**rejita*

Komunikazio hau herri literaturako Olentzarori buruzko azalpen didaktikoa da, etnografoek tradizio hori nola edo hala erroturik dagoen eskualde euskaldunetan bilduriko materialetan oinarriturik. Bertso, errefracu, elezahar eta sinesteak oinarri harturik, izenaren etimologia, ezaugarriak eta pertsonaiaren inguruko motibo nagusiak aztertu ditugu, bai eta horiek Eguberriko zikloaren motibo eta ohiturekin duten erlazioa ere. Azkenik, Olentzaro koplen hainbat bertsioren egitura formala deskribatzen da.

Giltza-Hitzak: Olentzaro. Gabon / Eguberri. Enbor / Subil / Motor. Ikazkin. Gentil.

La presente comunicación es una exposición didáctica sobre Olentzaro en la literatura popular en base a materiales recogidos por los etnógrafos en zonas vascófonas donde esta tradición tiene algún arraigo. Basándonos en los versos, refranes, leyendas y creencias, se aborda la etimología del nombre, las características y motivos principales en torno al personaje y su relación con otros motivos y costumbres del ciclo de Navidad. Se describe, por último, la estructura formal de las distintas versiones de coplas de Olentzaro.

Palabras Clave: Olentzaro. Nochebuena / Navidad. Tronco / Leño / Motor. Carbonero. Gentil.

Cette communication est un exposé didactique sur Olentzaro dans la littérature populaire sur la base de matériels recueillis par les ethnographes dans des zones bascophones où cette tradition a des racines. En nous basant sur les vers, refrains, légendes et croyances, on aborde l'étymologie du nom, les caractéristiques et les motifs principaux concernant le personnage et sa relation avec d'autres motifs et coutumes du cycle de Noël. On décrit enfin la structure formelle des différentes versions de chansons d'Olentzaro.

Mots Clés: Olentzaro. Nuit de Noël / Noël. Tronc / Bûche / Moteur. Charbonnier. Gentil.

* Deustuko Unib. Euskal Filologia Saila. Unibertsitateen etorb., 24. 48007 Bilbo.

Abenduaren 2an, San Frantzisko Xabierkoaren bezperan, Lesakako Udaletxeko Batzar-aretoan emaniko hitzaldia, Udalak eta Eusko Ikaskuntzako Folklore Sailak antolaturiko ekitaldiaren barruan.

Nire hitzaldiaren izenburua gaztelaniaz zetorrela egitarauan berandu konurtatu naiz: “Olentzero y la literatura popular” zekarren izenburutzat. Euskaraz idatzi nuen, pentsaturik Lesakan hala behar zuela, eta bestalde, San Frantzisko Xabierkoa euskararen patroia dugunez eta gaur haren egunaren bezpera, arrazoirik asko dagoela pentsatu dut hala egiteko gaur eta hemen.

1. OLENTZARO NEGUKO EGUZKI-BIRAN

Olentzaroren izaera, funtsean, neguko eguzki-biraren inguruko sineskera eta ohituren barruan kokatu behar da. Udako eguzki-biran Donianeak ospatzen diren antzera, neguko eguzki-biran Gabon eta Eguberri ospatzen ditugu gaur.

Kristautasunaren aurretiko ospakizunak dira berez aldi honetakoak. Izan ere, hortxe Gabon inguruan gertatzen da urteko egunik laburrena eta gaurik luzeena, hortik aurrera eguna pizkana luzatzen-luzatzen hasten dela.

Eguzki-bira hori Europako herri zaharretan, indoeuropar kulturetan ere ospatzen zen, kanta, errito eta ospakizun berezien bidez, eta jan-edan gehiegizkoen bidez ere bai.

Eguberri, ‘eguzki berri’ bezala itzultzen digu Joxemiel Barandiaranek. Izen horrek zaharra behar du izan, eguzkiari gur egiten zitzaion kristau aurreko aldikoa. Egun horretan eguzki berriaren etorrera ospatzen zen, eguzkia gorantz egiten hastearen hasiera.

Kristautasunaren etorrerarekin, Kristo izango da eguzki berri hori, eta Kristoren jaiotza ospatuko da egun horretan. Elizak, aintzinako ohitura, errito eta sineskera horietariko batzuk galerazi egingo ditu, baina beste batzuk, mezu berria iragartzeko ondo datozkionak, kristau sinesmenera egokitu eta egingo ditu.

Eguzki berriaren etorrerak lehen eta Kristoren etorrerak gero, badu zenbait kulturatan mezulari bat, iragarle bat, herrialde eta lurralde diferenteetan izen bereziekin ezagutzen dena. Ezagunak dira European Santa Klaus, beste izenez Alemania aldean San Nikolaos bezala ezagutua, Papa Noël eta abar. Horien artean kokatu behar da Olentzaro gurea ere; Euskal Herri osoan ez bada ere, Pirinioz beheko Nafarroa euskalduneari eta Gipuzkoako ekialde eta kostaldean, gutxi asko eta ohitura eta kantu diferenteen bidez ezaguna dena.

2. OLENTZARO ETA BESTE IZENAK

Olentzaro dugu Euskal Herrian, bere aldaera diferenteekin, Gabon eguna edota pertsonaia mezularia izendatzeko dugun izen ezagunenatariko bat.

Izen hau erabilia izan da, hasi Gipuzkoako itsas-hegian, baita ere Beterrian zehar Bidasoaraino, eta Nafarroako eremu zabal batean ere bai: ez bakarrik Lesaka eta Bortzirietan inguru honetan, baita Baztan, Leitza, Ezkurra, Beruete, Larraun, eta Sakana aldean ere bai apurren bat.

Badira, hala ere, beste izen ezagun batzuk, jai edo mezulari bera adierazteko: *Subilaro* Aezkoan, Arakilen edota Saran bertan ere erabili izan dena, *Suklaro*, *Sukilero* Nafarroaren iparraldean, *Zaraitzu* barne, *Galerie* Salbaterra aldean... eta *Mairu* hitza ere bai OIartzun aldean. Hala diosku Aita Barandiaranek.

Izen guztion atzean, gugana etortzekoa den norbaiten iragarpena da, bakoitzak ezaugarri bereziak baditu ere lekuan-lekuan. Gaur egun kristau giroko balioak dituzte atxikirik izenok. Eguzki berria Kristo da.

Herrietako gazteek karrikaz karrika eta etxez etxe kantuz eta bertsoz eske-ibilaldiak egiten dituzte herrian zehar Gabon egunez, eta lehen Gabon bezperan ere bai.

3. OLENTZARO-REN IZENA

Olentzero edo *Olentzaro* dira gaur izenik ezagunenak, baina aldaera diferentek ditu ezaguna den eremuan, leku batetik bestera aldatzen direnak. Hala, ahoz eta idatziz ditugun lekukotasunak bitarte direla, hemen Bortzirietan honetara deitu izan zaio: *Olentzero* eta *Olentzero*. Gipuzkoako Beterri, Tolosa eta Irun aldean *Olentzaro* edo *Olentzaro*. Baita ere *Olentzaro* (G), *Onontzaro* eta *Orentzaro* (G-beterrian), besteak beste.

4. OLENTZARO IZENAREN ESANAHIA

Hitzaren bigarren atalak arazo gutxiago du lehenengoak baino; argi-gardenagoa da alde guztietatik. Erraz antzematen dugu hor badela *zaro* hitza. Bakarrik mehatz erabilia, baina zenbait hitz konposatutan garbiro lekukotua, beti ere aldi, garai, sasoi eremuko esangura batekin.

Seguruenik, *aro* eta *zaro* hitz beraren aldaerak dirateke, edo hobeto esanda, jatorri bera dute, baina batak eta besteak balio bereziak atxiki dituzte semantika mailan.

Zaro hitza 'aldi, denbora, tenore' esanahi neutroagoaz erabiltzen den bitartean, *aro* hitzak *giro* zentzua beregandu du, gazt. 'sazón, tempero, tiempo adecuado para algo' esanahia. Gehienetan, lurgintzari loturiko inguruneetan ageri ohi da: ereiteko, aitzurrean egiteko, etab. *Aro ona*, *aro txarra egon* esan ohi da batetik. Ezagunak dira era berean Iparralden: *mahats aro da*, *mahats-uzta egiteko aro ona*. Edota *belharrak aro du*, belarra ontzeko aro ona dagoela adierazteko.

Hitz konposatu batzuetan ere balio berau gorde ohi du: *azaroa* –berez *hazi aroa*, hau da, *hazia ereiteko aroa*, eta zentzu zabalagoz, aitzurren-eta egiteko–; *bidaroa* (*bidearoa*) –berez bidea egiteko aroa–; *lotaroa* –Azkueren esanetan, lotarako aroa–; *ostaroa*, ostu edo orrien aroa (maiatza); *erearoa* (L), ereiteko aroa (ekaina). Bide horretatik, *-aro* atalaz eraikiriko izenok urteko hil batzuekin berdindu dira. Eta horretara, *azaro* ‘noviembre’ dugu, berez *hazia* ereiteko aroa; *erearo* ‘junio’ dugu, berez ereiteko aroa; *uztaro* ‘julio’ dugu, berez *uzta* egiteko aroa.

Konposatu bakan batzuetan, aldiz, *aro* hitza *zaro*-ren baliokide azaltzen zaigu: *gaztaro* / *gaztezero* hitzean adibidez.

4.1. Zaro hitzak bere espezializazioa izan du gure lexikografian. Hala, bizitzako aldiak adierazten dituzten hitz konposatuetan, ia beti, *zaro* itxura dugu. Horrela gertatu da: *haurzaro* (Z, R) –gaur egun *haurtzaro*– eta *seinzaro* (B) sinonimoetan, erdarazko ‘infancia’ adierazteko; *zaharzero* edo *zahartzaro*, ‘vejez’ esateko. Eta hain erabilia ez bada ere, *gaztezero* ere ezaguna dugu *gaztaro* aldaerarekin batera. Gaur egun *nerabezaro* ere erabiltzen da, ‘adolescencia’ adierazteko edo.

Bizitzako aldiez gainera, bestelako aldi edo denbora-gune batzuk adierazteko ere garatu da, urte barrukoak batzuetan. Hala, ezagunak dira Azkuek aipu dituen beste hauek ere: *barauzaro*, barau egiteko aldia. *Berrizaro*, zer-bait berri den bitarteko aldia. *Bilzaro* (Z, R), uzta biltzeko aldia. *Garagarzaro* (BN, G, AN), ‘ekaina’, berez garagar aldia. *Lanzaro* (R), ereiteko edo lan egiteko aldia. *Ostezero* (B Ms). *Sorzaro* (R, Z), sortze edo jaiotze aldia.

Gutziz beste eremu bateko hitzetan ere ageri da Bizkai aldean. Hala, *apari-zaro*, ‘cena ligera, colación’ esanguraz. *Eskerzaroan* (B-Markina), ‘de balde’. *Merkezaroan* (B-Muxika), merke zurrean.

4.2. Zer dugu *olen-* edo *onen-* hori?

Isastik XVII. mendean honela idatzi zuen: “a la Navidad (llamamos) *Oenzaro*, la sazón de los buenos”. Isastiren iritzi horrek izan ditu jarraitzaileak. Larramendik ere ontzat hartu zuen. Eta oraintsuago Azkuek berak ere bai, esaten baitu: “Ese *Oenzaro* no es más que época de lo bueno... y luego, de ese *Oenzaro* nos han nacido *Ononzaro*, *Olenzaro* y *Olentzaro*.”

Sebero Altubek beste hipotesi bat dakarkigu: *Olen* hitz-errotik abiatzen da, eta oinarrian esatera datorrena da, *olen* hori ez dela besterik, *Noël* hitzaren metatesia baino. Manuel Lekuona ere iritzi horretakoa zen. Hala izateko kasuan, *noël* > *onel* > *onen* edo *olen* izango genituzke. Kanpotikako hitz bitxiak euskal ezpainetan jasaten dituzten kontsonante-dantza horiek ez gaituzte batere harritu behar. Baliteke hitz horrek bide hori egín izana, baina nolana ere urrun samar daude hitz biak, eta bitarteko pausuen arrasto gardenik ez dugu.

Caro Barojak beste bide batetik jotzen du, eta beronek proposatzen digun bideak ere bere logika du. Eusebio de Etxelar fraidearen esanei jarraituz, dio Caro Barojak, Olentzaro, “O”ren jaiarekin loturik edo kideturik dagoela. Erdi Aroan bazen “Antiphonae majores” kantatzeko ohitura zaharra. “Antiphonae” horiek “Magnificat”en aurretik eta ondoren kantatzen ziren eta denak (zazpiak) hasten dira “O” hitz edo letraz. Horri loturik –diosku Caro Barojak–, Frantziako jendeak antiphona horiei deitzen omen zieten “les O de Noël”. Hortik sortu omen zen han Erdi Aroan *les oleries* izena, hau da “O-en garaia”, eta euskaraz zehaztasun osoz “Olentzaro-a”.

Hipotesi honek bere alde duena da, Olentzeroren ohitura eta ospakizunak hortxe mugatik hurbil indarra izatea. Gogora dezagun, bestalde, Pirinio peko lurralde guztian ere badirela beste izen batez Olentzero pertsonaiaren kideak, eta izen horrek biltzen dituen antz-antzeko ohiturak. Hala ere, Pirinioz ifarraldera oihartzun eskasa du Olentzerok. Agian ingelesen azpian egon zirelako denbora luzez?

Azkenik, Satrustegik beste hipotesi bat dakarkigu: Eske-kantuetan ibiltzea, *oles-oles ibili* esaten da Bizkaiko herri batzuetan (Otxandio, Oleta...), eta kantu hasieran *oles* hitza erabili ere bai. Hortik ote datorren susmoa du. Gertatzen dena da, Olentzero izenak Bizkaian, Araban eta Gipuzkoaren sartaldean ez duela inolako oihartzunik. Satrustegik, dioenaren froga gisa, Urdiainen jasoriko Olentzeroren bertsio hau dakarkigu:

“Zapata txuriyek paperez, / iauriya dekala, baterez;
Nagusi jaunari esango deagu / asiko ote gaan ero ez.

Orra, orra gure Olentzero, / pipa hortziyen duela / ixerita dago,
Kaponak ere bai ta / oilaskotxuekin,
Biher merendatzeko / botilla arduakin.

Olez, olez, / bakallu jalez, / bost eta sei hamaika,
Txorixorik ez balin badago, / igual dela lukainka”.

5. OLENTZERO, GABON EDO EGUBERRI IZENEN BALIO ETA ESANAHIAZ ERABILIA

Gaur egun, *Olentzaro* izena, Gabon egunez gure artera etorri ohi den pertsonifikazio bati loturik dago: giza irudiz agertzen zaigun pertsonaia bat izendatzeko erabili ohi da hitz hori, batipat. Olentzaro, Gabon egunez Kristoren etorreraren mezulari modura edo datorren pertsonaia barregarri antzeko baten izena dugu batez ere gaur egungo folklorea.

Baina tradiziara jota, eta idatziz zein ahoz jaso izan diren lekukotasunetara jotzen badugu, *Olentzaro*, Gabon eguna adierazteko erabili den hitza dugu oinarrian. Eguna baino hobeto, gabon gaua esango genuke.

Ezaguna dugun lekukotasun idatzizkorik zaharrena, goian aipatu dugun Lope Martinez de Isasti kronikalariarena da. 1620 inguruan idatziriko

Gipuzkoako historian¹, bi izen aipatzen ditu Gabon gaua adierazteko: *Onenzaro* deitzen omen diote batzuk, eta *Gau on* beste batzuk. “A la noche de Navidad (llamamos) *Onenzaro*, la sazón de los buenos”.

Hitzaren azken atalaz dioenari ezin diogu jaramon handiegirik egin, zeren zail ikusten baitugu *onen* –hau da, *on* adjektiboaz + *-en* genitibo pluralaz osaturiko hitza–, genitibo atzizki eta guzti konposizioan sartzea. Hala izatekotan, *on* + *zaro* gerta zitekeen errazago. Isastik etimologia hori seguruenik, gaztelaniazko ‘Nochebuena’ horren adjektibotik atera zukeen.

Isastiren argibide horretatik benetan balio diguna da, *Onenzaro*, Gabon hitzaren zentzukide bezala erabiltzen zela jakitea da. Eta Gipuzkoan esaten zela gutxienez, Gipuzkoako alde batzuetan, jakina. Eta Nafarroako alde batzuetan ere hala esaten zela ez da dudarik, beste arrasto askotatik jakin daitekeenez.

5.1. Herri-literaturan

Errefrauetan ere badugu hitzaren zentzu horren frogarik. Azkuek 1879ko almanake batetik jasoriko errefrau batek dio: *Onenzaroz leioan, pazkoetan sua*, ‘por Navidades en la ventana, por Pascuas (haciendo) fuego’, justu okerretako gauzak edo denborak agintzen duenaren justu kontrakoak egiten dituenari zuzenduriko atsotitza.

Orixek ere *Euskaldunak* poeman bide beretik ulertzen du hitzaren esanahia: *Olentzaroz Jainko Aundi; / Iñauteriz jainko txiki*. (157). Edo atzerago: *Kantuok Onenzaroz eman oi ziran beiñola* diosku Orixek berak (141). Orixeren eremuko euskaraz *Onenzaroz* esatea zen, *Gabonez* esatea.

Gotzon Garatek oraintsuago argitaraturiko atsotitzetan ere badira bi gutxienez zentzu hori gordetzen dutenak:

“Olentzaro (abenduak 24) arratseko aizeak berrogei edo iru illabete(a)n segitzen du.” Eta “Olentzero gauerdiko hegoaizea berrogei eguneko haizea” (Goizuetan jasoak, *Atsot.*, 12.509).

Gabon-kanta askotako hitzetan aipatzen da *Olentzaro*, *onentzaro* edo beste aldaeraren bat, Gabon adierazteko. Ondoko herri-kantuan hala ageri da, eta bide batez beste argibide bat: lehenago mutikoez etxetik etxe eskekiak Gabon bezperan egiten zituztela:

“O, o, o, bihar *Olentzero*, / i, i, i, etzi Eguberri,
kanta dezagun / Ama Birjiñari.
Eguberri, berri, nik atorra berri,
Eguberri zar, nik atorra zar,
Maukarik ez, / niri axolik ez”.

1. Lope Martínez de Isasti, *Compendio historial de la M.N. y M.L. provincia de Guipúzcoa*, San Sebastián: 1850, 166.

5.2. Olentzaro enborraren ohitura

Gabon egunez behe-suan ipintzen den enbor edo mukurrari, izen diferentek eman izan zaizkio han-hemen. Oiartzun aldean ezaguna da *Olentzero enborra*; Larraun inguruan *Onantzaro mokorra* esaten zen; Azpiroz inguruan *Orantzaro trunkoa* (Azpiroz).

Gabonzuzia esaten zitzaion Zegama aldean, *Gabon-mukurra* Bizkaiko alde askotan (Bedia), *Gabon-subil* ere bai.

Nafarroako Pirinio alde zabal batean *subil* hitzaren eratorriak dira ezagunagoak. Aezkoan *Subilaro-egur* deitzen zitzaion, *Sukubela* Liginagan, eta leku askotan *Sukilaro edo sukilero*. Euskal Herriaz urrunago ere, ‘tronco de Navidad’ horren ohiturak eta horri atxikitako sinesteez hedadura handia dute gizarte tradizionalen. Urrunago joan barik, Pirinio guztian zehar hedaturik dago.

Esanahira bihurturik, *Olentzaro-enbor* konposatu horretan ere *olentzaro*-ren esanahia *Gabon*-en baliokidea dugu.

Gabon-mukurraren inguruko ohiturak direla eta, bat hau da: mukur edo enbor horren zati bat Gabon egunez erretzen zen, baina beste parte bat hurrengo urterako gordetzen zen. Eta erretako enborraren errautsak etxeko landa eta soroetan banatzen ziren, pizti txarrak hil zitezten. Nolanahi ere bertute magikoak zituzten bai mukurrak eta bai haren hautsek, soroentzat zela, etxeko ganaduentzat zela, etxearentzat berarentzat zela.

Bide bereko hitz konposatu ezagunak ere baditugu: *Olentzero-afari/-apari* (AN-gip), ‘cena de Nochebuena’ adierazteko. *Orentzaro eguna* (Leitza), Gabon aurreko eguna izendatzeko. *Olentzero-gaba*, *Orontzaro gaue* (Tolosa, Leitza).

6. OLENTZARO, GIZA IRUDIKO IZAKI BAT

Joxe Miel Barandiaranek hainbat lekukotasun eskaintzen dizkigu bere ikerlanetan. Eurotariko bat aipatuko dugu, argigarri den aldetik:

“*Onentzero, Olentzero, Onantzaro, Orantzaro, Onontzoro* du bere izena, Naparroako eta Gipuzkoako muga inguruetako errietan Gabon batean agertu oi dala esaten duten izaki batek” (JMB, *Leen Egundetako Itzaldiak*, 103).

Eguberriz, gazteak etxez etxe zebiltzanean erabiltzen zuten panpina edo pertsonaia giza-irudiko horri deitu izan zaio *Olentzero*, tokian-tokian bertako aldaerekin. Kantuz ibiltzen ziren gazteok etxez etxe, sari apurren bat jasotzen zutela.

Saria, beste leku askotan bezala, jateko zerbeit izaten zen. Ondo dator *Olentzero* tripazain horren aitzakia, ase ezineko horrena, txerrikia edo gauza gozoak eskatzeko.

Ikus ditzagun ondoren pertsonaia horri atxiki izan zaizkion ezaugarri zenbait.

6.1. Olentzaro berrion-iragarle

Olentzaroren pertsonaiari erantsi zaion ezaugarrietariko bat, Kristoren etorreraren iragarle edo mandatari izatearena da. Pertsonaia erdi barregarri, erdi basati bati halako berrion-iragarle papera egotzi izana beste pertsonaia mitiko batzuekin ere badakusagu.

Herri-kanten bidez heldu zaizkigun informazioen arabera, Olentzarok bete-bete hartzten du Kristoren etorreraren iragarle eginkizuna. Hala dio bertsio ezagun batek:

“Olentzero jua zaigu / mendira lanera, / beregan ala ustez / ikatz egitera.
Aditu duanean / Jesus jaio dala / lasterka etorri da / adieraztera”.

Lesakako bertsio ezagunean, Olentzero mendian ari da ikazkinen, eta han jakiten du modu misteriotsu edo goitikako adierazpen baten bidez, Jesus jaio dela, eta orduan herrira jaisten da aditzen ematera:

“aditu zuenian / Jesus jaio zela, / lasterka etorri omentzen / parte ematera”.

(E. J. Esparza, *Noticia...*, 1950)

Gazte-kuadrilak, ikazkin itxurako panpin handi bat andetan hartuta, bertsio hauek eta honen segidako beste batzuk, edota eskekoplak kantatuz ibiltzeko ohitura aspaldikoa dugu hemen inguruko herrietan, batipat: Lesaka, Oiartzun, Leitza...

Jentil irudipean ageri zaigu beste leku batzuetan berrion iragarle hau, nahiz ez beti Olentzaroren izenpean; ez behintzat sartaldean. Hernanin, Ataunen, Idiazabalen, Etxarri-Aranatzen, Urdiainen, Altsasun edo Orozkon eza gutzen da gutxienez jentil irudiko mandataria. Gorago esan bezala, *mairua* dugu Oiartzunen.

Aralar aldeko artzainek Aita Barandiarani 1916-17 inguruan kontatu zioten esaunda honek argitzen digu ondo basagizon mezulari edo mandatariaren ezaugarria. Aralar aldean, Argaintxabaleta deritzan zelaian omen zebiltzan jentilok jaiegun batez dantzan eta armonia ederrean, eta halako batean argitasun bat ikusi omen zuten urrunean, hurbiltzen-hurbiltzen. Eta haietan zaharrenak esan omen zuen: “*Kixmi* jaio da. Gure askaziak egin du; hau da gure azkena”. Eta ikaraz beterik, ihesi hasi omen ziren, eta Arraztaran ibartxora heldu zirelarik, Jentilarri deritzan dolmen edo trikuarri baten barruan sartu omen ziren. Jentiletariko bat, ordea, bereizi omen zen besteengandik eta hark jaitsi omen zuen behe aldeko herritarren artean Kristoren jaiotza. Hauxe da, Barandiaranen esanean, Aralargo jentilen akaberaren esaunda eta lehenengo Olentzeroren etorrera; hau da, Kristoren etorreraren iragarlearena.

6.2. “Olentzero begi gorri”

Beheratxoago aipatzen dugun edatun handia izatearekin zerikusia du gehienetan “begi-gorri” izaera honek. Herri-kantetan, *Olentzaro*, *Onentzaro* ‘begi-gorri’ adjektiboaz aipatua da hainbat aldiz.

Baliteke ‘begi-gorri’ izate horrek, edatuna eta orditurik egoteaz gainera, beste zerbait ere adieraz ote dezakeen, batez ere haur eta txikien irudimenean: izaki handi beldurgarriaren itxura, hain zuzen.

Pio Baroja dugu, besteak beste, dioskuna, XX. mende hasieran, Donostian, begi gorridun mamu izugarri batekin kidetzen zutela Olentzaro edo Onentzaro. Eta ondoko bertsoa kantatzen omen zitzaion:

“Onentzaro begi-gorri, / nun arrapatu dek arrai(n) hori?
Zurriolako arrocketan / bart arrantzeko amaiketan”.

Espartzaren bertsoak honela dio:

“Olentzero begi-gorri, / non arrapatu duk arrai hori?
Zorioneko erreketan / arratseko hameketan”.

(E. J. Esparza, *Noticia...*, 1950)

Orixek ere *Euskaldunak* poeman aipatzen digu, *Begi-gorri*, Olentzaroren goitizen modura darabilela: *Begi-gorri badator Aiton Olentzaro* (*Eusk* 139). Eta beste pasarte batean: *Andik egun bitara Olentzaro mozkor*. (*Eusk* 135).

Satrustegik ere lekukotasun politak bildu dizkigu kantu bidez. Herri tradizio zaharreko koplak hauetan, umorea eta jai giroa da nagusi, eta elkarriketa modura antolatuta daude, galde eta erantzun. Olentzaroren inguruko beste kantuetan bezala, Gabon inguruko janari edo jateko kontua da nagusi. Eta satira eta umorea ere barne. Entzun:

“Olentzero begi gorri, / nun harrapatu dek arrai hori?
Itsasoko arkaitzetan / bart arratseko hamaiketan.

Olentzero begi gorri, / nun arrapatu dek arrautz hori?
Teleitxoko oilo txuriak / bart poltxikoan jarri zi(d)ak.

Olentzero begi gorri, / nun harrapatu dek gaztain hori?
Domingozuneko leihopian / haizeak bota bart gabian”.

(J. M. Satrustegi, “Olentzero. Estudio del personaje mítico vasco” ..., 15.)

6.3. Olentzaro izaki bildurgarria

Zenbait lekutan Basajauna, Jentila eta antzeko beste izaki bildurgarrien pareko dugu Olentzaro. Zenbait lekutan, tximiniatik behera etxe barrura sartzan dena, etxekoei kalteren bat dakarkiela. Tolosa aldean ere esaera da, Olentzero tximiniatik jeisten dela. (Azkue *EY*, I, 326).

Larraunen, Berueten eta beste herri batzuetan Eguberri egun aurreko baraualdiaz lotzen dugu Olentzaro. Kantatzen diren laukoek bezpera gaueko baraua aipatzen dute. Larraunen esaera da, egun horretan baraua gordetzen ez duenari lepoa moztu. Barandiaranek ondoko ahapaldia bildu zuen Larraun inguru horretan:

“Onontzaro begi gorri / tximinira da etorri;
Hausten balin badegu barua / horrek lepua kendu guri”.

(J. M. Barandiaran, *Egan*, 1956, 167)

Satrustegik, Berueteko tradizioetik jasorik, diosku, Olentzarok Txaxenea etxeko alaba bahitu omen zuela eta haren soineko prenda bat utzi, bahitzai-leak hau zioela: *Hau zuentzako ta Txaxeneko etxeko alaba guretzako*.

Satrustegik berak, Olentzero beldurgarri honen irudipena gordetzen duen beste esaera bat ere ematen digu, nagusiek umeei mehatxu gisa esandako modura: *Orantzaro etorkook eta eamaan hau!*

6.4. Olentzero ikazkina (beste lanbide batzuk)

Olentzero-kanten bertsio ezagun eta ugarienetan ikazkin bezala ageri zaigu petsonajea: *Olentzero jua zaigu mendira lanera, intentzioarekin ikatz egitera*.

Hala ere, beste herri batzuetan, Barandiaranek bildutako lekukotasunetik, artzaina ere izan daiteke, eta inoiz nekazaria ere bai.

Piarres Lafittek Hendaian jaso zuen kanta bat, eta berak susmoa zuen Irun aldetik etorria zenetz, hau zioena:

“Hemen degu ikazkiña, / mendiko gaizkin zikiña,
beltz-beltza dauka arima, / eta Mikelats izena.
Guk bildu-ta hor da preso, / ondo dator Olentzero”.

(P. Lafitte, “Eguberri aroa eskualdunen ohiduretan”, Z.A., 23-12-1973)
(1929 urtean bildua)

Adierazkortasun handiko bertsoa, non ikazkinaren kanpo-itxura belztu horrek barruko belztasuna ere erakusten duen, ‘arima beltza’ duela, hain zuzen.

6.5. Olentzero arlotea

Eskale baten antzeko soineko zahar edo zatarrekin jantzia bezala azaltzen zaigu kanta-ahapaldi batzuetan. Lesakan Esparzak jasorik bertsio horretan esaten da, bere emazte edo bizilagunak soinekoak saldu dizkiola, hura ezer gabe utzirik:

“Olentzero guria, / fortuna tristia,
arropak saldu dizka / bere emaztiak”.

(E. J. Esparza, *Noticia...*, 1950)

6.6. Olentzero jatun handia

Jatun eta edatun handi bezala azaltzen zaigu bertasio askotan. Halako giza erraldoi kankailua, jale eta edale azkengabea. Gehiegian jan eta edatea Gabon inguru horri aspalditik lotua dago. Neguko eguzki-bira edo solstizioaren ospakizun zaharretan errotua daude jan-edaneko gehiegikeriok, beste errito eta ospakizun batzuekin batera. Kristau tradizioak ere Kristoren etorrera ospatzeko ere aintzat hartu zuen Gabonaldian asko jan eta edanez zelebratzeko ohitura zaharra.

Hemengo Lesaka aldekoa da E. J. Esparzak jasotzen duen bertasio hau (*Noticia...*, 1950).

“Olentzero guria / ezin degu ase,
bakarrik jan dizkigu / hamar zerri gazte;
saieski ta solomo / tripazaiak haste,
Jesus jaio dalako / konsola zaitzte”.

Lizartzan ere antzeko bertasio hau dugu:

“Olentzero guria / ezin degu ase,
osorik jan dizkigu / amar zerri gazte;
saieski ta solomo / makina bat este, (...)”

Txerrikoa –saiheskiak, solomoak, lukainkak...– da neguko janari oinarrizkoa, bai Olentzero-kanta hauetan eta osterantzerako beste gabon-kanta askotan; hegatzia ere bai: kapoiak, oilarrak... Gabon aurreko txerri-hiltze ohi-turekin lotu behar da kanta-bertasio hauen sorrera.

6.7. Olentzero edatuna

Jatun handiaz gainera, edatun handia ere badela dioskute ahapaldi batzuk, herri batetik bestera aldaketa txikiak dituztenak.

Hala, Goizueta aldeko bertasio baten arabera:

“Olentzero / buru haundia, / entendimentu gabia,
bart arratsian / eran omen du / bost arruako zagia.
Ai urde tripa haundia!”

(Goizuetako bertasioa, Aita Donostiak dakarrenez)

Edo Esparzak jasorik dakarren Lesakako hau:

“Olentzero buru-aundiya / entendimentuz jantziya,
bart arratsian edan omen du / amar erruko zagia.
Ai, urde tripa-aundiya, / ai, urde tripa-aundiya!”

Hurrengo ahapaldian ere *botilla-ardua* aipatzen zaigu, hurrengo eguneko meriendan kapoia arraultzetxoekin jaten laguntzeko.

Ohar bedi, bide batez, Olentzaro dela eta ematen zaizkigun ezaugarri kontrajarri bi: entendimentu gabea leku batzuetan, entendimentuz jantzia beste batzuetan. Gizon erraldoi lodikote jatun eta edatun baten izaerarekin baterago datorrela dirudi *entendimentu gabea* izatea, buru arin edo kaskarin antzeko gizakia.

Baina herri tradizioaren ezaugarrietarik bat da testuen aldakortasuna eta eraberritzeko gaitasuna: aurreko lekukoei entzundako esanak, transmisoreak bere adimen-galbahetik iragazi ondoren, berrinterpretatu eta egokitu egiten ditu maiz, batzuetan esanahi diferentea emanez. Olentzaroren irudi jasoaren erakusten du Lesakako bertsoak, *entendimentuz jantzia* dela esatean.

7. ESKE-KOPLÉN OHITURA ETA OLENTZAROREN BERTSOAK

Olentzeroren kanta edo bertsoak, bere aldaera guztiekin, oinarrian, Gabon bezpera eta Gabon eguneko eske-koplekin loturik daude. Bertsiarik gehienetan, Olentzero pertsonaia aipatzen duten koplez gainera, lekuan lekuan eskea aipatzen dutenak ere kantatzen dira. Adibidez, Lesakako hau:

“Armariyuan xagua, / haren onduan katua,
itxi honetako limosnakin / beteko degu zakua”.

(E. J. Esparza, *Noticia...*, 1950)

Edota bezperan, hurrengo eguna Olentzaro dela iragartzeko, kantatzen den beste hau:

“O, o, o, bihar Olentzero, / i, i, i, etzi Eguberri,
kantatu dezagun / Ama Birjiñari.
Eguberri berri, / nik atorra berri,
Eguberri zar, / nik atorra zar,
Maukarik ez, / niri axolik ez”.

8. “OLENTZERO JUAN ZAIGU” KANTUA ZAHARRA OTE?

Bertsio ugariak dituela esan dugu kanta honek. Jose Luis Ansorenak eskainiko digu askoz hobeto Nafarroa-Gipuzkoetan sakabanaturik diren bertsiu ugariaren neurria.

Guk dakiguna, Olentzaro-kantok ez dute egile ezagunik. Baina zabalaren dabilzan bertsioren bertso-tankerari erreparatuz gero, horren zaharrak direnik ere ez dirudi. Zortziko txikiaren tankeran onduak dira ahapaldiak, eta lau puntukoak dira. Hala bada, gaur ezagutzen dugun bertsoaritzaren legeetan eginak dira kantaren bertsoak.

Bertsook ez daukate inondik ere, balada-erromantze zaharretako lauko zaharren antzik. Nafarroa alde honetan ezaguna da, esaterako, Andre Emili izenekoa. Humboldt-ek Lapurdin bildu zuen bertsiorearen arabera:

«Andre Emili, andre gora, / Orai ez arto-jorra,
Ogirik orra hain guti, / Zoaz Mairu herrin gora.

Saldu nintzen dirutan, / Asko sari handitan,
Ehun pizu dirutan ta / Berrehun dupa ezitan.

Aita nuen salzaile, / Ama diru hartzaile,
Anaiarik txipiena / Mairuetarik kentzaile”.

Beste hainbeste esan daiteke Nafarroa alde honetan ezagunak diren: Urtsua, Peru Gurea, Frantziako anderea edo Neska ontziratuaren bertsoen tankera aztertuz gero.

Bertsolaritza tradizionala indarrean zegoen aldikoak izan behar dute, nonbaiten ere, Olentzaroren ahapaldiok: aro modernokoak izatearen antz osoa dute. Bertsolari anonimoren baten eskuak edo lumak egon behar du euron atzean, izan ere bertasio batetik bestera diren aldeak ere ez baitira horren handiak.

8.1. Aldaera nagusiak

“Olentzero joan zaigu” hasten denaren bertasio diferenteak badira. Aldaera txikiak dituzten arren, badira aldeak batetik bestera. Gaur zabalduen antzean dabilenetarik bat ondoko hau izan daiteke:

Olentzero joan zaigu / mendira lanera
intentzioarekin / ikatz egitera.
Aditu duanian, / Jesus jaio dala
laisterka etorri da, / berri ematera.

Horra, horra, gure Olentzero,
pipa hortzetan dula eserita dago,
kapoiak ere baitu arrautzatxuakin
bihar meriendatzeko botila arduakin.

Olentzero guria / ezin degu ase,
bakarrik jan dizkigu / hamar txerri gazte,
saieski ta solomo, / makina bat heste,
Jesus jaio da eta, / kontsola zaitetze.

Horra...

9. ONDORIO GISA ONDOKOAK AIPATUKO NITUZKE

Olentzarorena Euskal Herriko parte bateko ohitura da tradizioaren arabera. Batez ere Pirinio azpiko euskal lurralde horretakoa, eta bereziki Nafarroa eta Gipuzkoako herri mugakideetakoa. Guztiz ezezaguna da Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako sartaldean.

Gaur ezagutzen ditugun bertsoak hedatuenean ez dute biderik ematen pentsatzeko, Olentzaroren ohitura edota pertsonaia bera bezain zaharrak

direnik pentsatzeko. Bertso-tankera modernoa dute, eta gaiaren aldetik ere ez dirudite zahar-zaharrak. Gastronomiaren aipuek ere kutsu moderno samarra ematen diete.

Gaur egun Olentzaroren ohitura lurraldez hedatu egin da batetik, gutxi-asko Euskal Herri osoan oihartzuna izateraino. Horrek ez gaitu beldurtu behar. Tradizioek, aldatzen direlako irauten dute: aldakuntza berekin daroa irauteak.

Tradizioz ezagutzen ez ditugun ezaugarriak gaineratu zaizkio Olentzaro modernoari: opariak egitearena, besteak beste, Errege Magoen tankera hartuz. Tradizioaren biziberritzearen eta aldaeraren ezaugarri garbia hori ere.

Jaun-andreak, esan dut esatekoa. Mila esker guztioi.